



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko otsailaren 21a

14. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzekoa, alargun pentsioengatiko zerga kenkariei dagokienez. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, tokiko telebista digitaleko emisio lizentziak esleitzeko erabiltzen diren irizpideei buruzkoa. Aralar parlamentu-taldeak egina (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa arautzearen aldeko politika aktiboan parte har dezan. Foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata pareka ditzan berriz. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñeko Nabarrerria kaleko 39. zenbakian dagoen eraikinari “Pío Baroja eraikina” izen ofiziala emateko. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kixotearen IV. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak susta ditzan. Erretiratutako mozioa (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Zangozan osasun etxea eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (9. or.).

—Galdera, Tuterako “Torre Monreal” hezkuntza bereziko ikastetxean hidroterapiako igerileku bat eraikitzeari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (9. or.).

- Galdera, Tuteran dagoen Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroa materialez hornitzeari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (10. or.).
- Galdera, Tuteran dagoen Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroa abian jartzeko Hezkuntza eta Osasun departamentuen koordinazioari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (11. or.).
- Galdera, Tuteran dagoen Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroan aritzeko profesionalen kopurua handitzeari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (11. or.).
- Galdera, minbiziaren kontrako tratamendua jaso zuten pertsonen batez besteko gastuari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (12. or.).
- Galdera, segurtasun enpresei esleitu beharreko zerbitzuak zehazteko erabiltzen diren irizpideei buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (13. or.).
- Galdera, Foruzaingoko trafiko ataleko ibilgailuei buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (14. or.).
- Galdera, Foruzaingoko 2005eko plantilla, organikoa eta eginkizunena, zehazteari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (14. or.).
- Galdera, Foruzain berriak lanpostuei atxikitzeko irizpideei buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (15. or.).
- Galdera, ezgaitasunaren arloko laguntza zentro itunduei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (15. or.).
- Galdera, Centros Tecnológicos de Navarra, S.A. (CETENASA) enpresan dagoen laser zentroari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (16. or.).
- Galdera, osasun etxeetan monitore desfibriladoreak paratzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (17. or.).
- Galdera, Tuterako César Muñoz Sola pintorearen margolanak erosteko aukerari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (17. or.).
- Galdera, Eguesko udal planaren aldaketari buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (18. or.).
- Galdera, Nasuinsak berrikuntzaren hiriaren bigarren fasea antolatzen eta gauzatzen parte hartzeari buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (19. or.).
- Galdera, osasun etxeetan itxaron zerrendak egiteko prozedurei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (20. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzekoa, alargun pentsioengatiko zerga kenkariei dagokienez.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko foru lege proposamena aurkeztu du: "Foru Lege proposamena, abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzekoa, alargun pentsioengatiko zerga kenkariei dagokienez".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea alargun pentsioengatiko zerga kenkariei dagokienez aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Lege proposamena, abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legea aldatzekoa, alargun pentsioengatiko zerga kenkariei dagokienez

ZIOEN AZALPENA

Otsailaren 17ko 1/2004 Foru Legeak testu berria eman zion Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67 bis artikuluari, zeinak ezartzen baitu alargun-pentsioa jasotzen duten subjektuek

kenkari gehigarria egiten ahalko dutela, kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako gutxieneko zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa.

Gero, abenduaren 29ko 19/2004 Foru Legeak manu hori aldatu zuen, eta halatan, lanbide arteko gutxieneko soldata aipatu ordeztatu askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) aipatzen da, Lanbide arteko gutxieneko soldataren arautegia arrazionalizatu eta soldata horren kopurua igotzeari buruzko ekainaren 25eko 3/2004 Errege Lege Dekretuaren bidez ezarria.

Aipatu errege lege dekretuko 4.2 artikulua ezartzen duenez, "Autonomia erkidegoek, Ceuta eta Melillako hiriek eta toki administrazioa osatzen duten entitateek IPREMa erabili ahalko dute errenta-adierazle gisa, eta hori ez da eragozpen izanen zeinek bere adierazleak ezartzeko Konstituzioari jarraikiz dituen eskumenak baliatuta". Hartara, Nafarroak lanbide arteko gutxieneko soldata erabil dezake adierazle gisa aipatu ondorioetarako.

Kontuan hartuta lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbateko indarduna IPREMarena baino handiagoa dela, eta ikusita otsailaren 17ko 1/2004 Foru Legeak zer helburu dituen, bidezkoa da aipatu adierazleetarik bigarrena erabiltzea erreferentziatutako alargun-pentsioak jasotzen dituzten zerga dedukzioetarako.

Artikulu bakarra.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 67. bis artikulua aldatu da. Ondotik ematen den testua izanen du:

"67. bis artikulua. Alargun-pentsioengatiko kenkaria.

1. Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alargun-pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren 50.

artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, kenkari gehigarria egiten ahalko dute, kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako gutxieneko zenbatekoaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Aurreko lerrokan ezarritako kenkaria kalkulatzeko, alargun-pentsioa ez baldin bada jaso zergaldi osoan, zenbateko hori urtera eramanen da. Kasu horretan, zergaldian zehar alargun-pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egunen kopuruaren arabera kalkulatu da kenkaria.

Zilegi da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatzea kenkari hori denbora baino lehen abona dezan. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk eginen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta denbora baino lehenagoko abonua eskatzeko eta eskuratzeko prozedura ere.

2. Gizarte Segurantzatik kasuan kasuko pentsio motarentzat finkatutako gutxienekoa baino gehiagoko alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak jasotzen dituzten subjektu pasiboek zilegi dute kenkari gehigarria egitea, jasotako pentsioaren zenbateko-

aren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren arteko diferentzia adinakoa, kasu bietan urteko kopuruak kontuan harturik.

Kenkari hori egin ahal izateko, beharrezkoa izanen da subjektu pasiboek ez jaso izana zergaldian, alargun-pentsioaz gain, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko beste errentarik, salbuetsiak alde batera utzita.

Idatz-zati honetan araututako kenkaria ezin izanen da denbora baino lehen abonatu.

Alargun-pentsioa ez bada zergaldi osoan jaso, artikuluko honetako 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokan ezarritakoari jarraituko zaio.

Kenkari hori egiteko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.”

Xedapen indargabetzailea

Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2005eko urtarrilaren 1etik aitzina izanen ditu ondorioak.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, tokiko telebista digitaleko emisio lizentziak esleitzeko erabiltzen diren irizpideei buruzkoa.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tokiko telebista digitaleko emisio lizentziak esleitzeko erabiltzen diren irizpideei buruz Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Ekonomia eta Ogasun kontseilari Iribarren

jaunari, eta tramitzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari:

Jabeldura, ondokoak jakiteko:

1.- Tokiko telebista digitalaren barrutiak eskatzeko Gobernuak aplikatu dituen irizpideak.

2.- Madrileko Gobernuan egindako urratsak, eskatutako barrutiak Nafarroari esleidi dakizkion.

3.- Tokiko telebista digitala emititzeko lizentziak emateko pleguak prestatzeko Gobernuak ezarri dituen irizpideak.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezala.

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa arautzearen aldeko politika aktiboan parte har dezan.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kanabisaren erabilera terapeutikoa arautzearen aldeko politika aktiboan parte har dezan"

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Iragan 2004ko otsailean haxe erantzun zion kontseilari Kutz andreak kanabisa terapia gisa erabiltzeko baimenari buruz parlamentu-talde honek egindako galdera bati:

“Oraingoz ez dago froga zientifikorik erabileraz eta ezinbestekoa da ikerketa oinarrizkoa nahiz aplikatua egitea erabilerak, dosiak, administratzeko bidea, cannabinoide egokia eta abar zehazteko.”

Une honetan, Espainian ez da legezkoa marihuanaren kontsumo terapeutikoa, baina gaixo askok erabiltzen dute landare hori mina arintzeko edo tratamendu oso agresiboen ondorio negatiboa, minbizia dutenengan kimioterapiak eraginda-koak kasu, leuntzeko.

Kataluniako Osasun Departamentuak bere egin zuen iaz Bartzelonako Farmazilarien Elkargoaren proposamena, farmazietan kanabisa xede terapeutikoarekin saltzeko proiektu baten aitzindari izatekoa.

Pausoak sendotuz doaz; izan ere, Kataluniako Osasun Departamentuak eta Generalitateko osasun baliabideen zuzendariak baieztatu dute Kataluniako administrazioaren eta Osasun Ministerioa-

ren arteko akordioa erabatekoa dela eta bi hilabete epean hitzarmen bat sinatuko dela. Marihuana kapsuletan salduko da. Bartzelonako Farmazilarien Elkargoko lehendakariak esan zuenez, hasiera batean 60 farmaziak parte hartuko dute proiektuan, eta gaixoaren jarraipena egingen da tratamendua agindu duen sendagilearekin lankidetzan estuan.

Hori dela-eta, IUN-NEB parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kanabisaren erabilerara terapeutikoa arautzearen aldeko politika aktibo batean parte har dezan, mina arintzeko kanabisa hartzen duten gaixoei dosi egoki eta kontrolatua izan dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lanean has dadin marihuana hartzen duten gaixoei ekiditeko beharrezko dosia erosteko merkatu beltzera joan behar izateak eragiten dien larrimina, medikuaren kontrolpean ez egoteak dituen arriskuak zein diren ez baitakite.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuaren arteko akordio bat lor dezan, kanabisa xede terapeutikorako sal dadin farmazietan edo ospitaletan.

Iruñean, 2005eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata pareka ditzan berriz.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata pareka ditzan berriz.”

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal-ko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuaren alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata berri pareka berriz premiatzen duen ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Denbora batez, Nafarroako emakume nahiz gizon alargunek errebindikazio eta mobilizazioak egin zituzten, gure foru erkidegoan bizi duten egoera ekonomikoa hobea dadin lortzeko helburuarekin, esanez Nafarroak gizarte laguntzaren arloko eskumenak dituela eta egoera ekonomikorik onena eta bizi maila altua duen autonomia erkidegoa dela.

Parlamentu-taldeek, kezka horien berri izan baitzuten, ekimenak abiarazi zituzten, eta azkenean, ekimen horietako bat onetsi zen indar politikoko guztien babesarekin, otsailaren 17ko 1/2004 Foru Legea alegia.

Lege horri esker, Nafarroako emakume eta gizon alargunek, alargun pentsioak jasotzen zituztenek, 52 euroko laguntza osagarria jaso behar zuten Nafarroaren funtsetatik. Gero, 2005eko aurrekontuen legea onesteko unea baliatuta, UPN eta CDNren gobernuak hutsaldu eta aldatu egin zuen Legebiltzarrak onetsitako legea; izan ere, artikuluko baten bidez aldatu egin zuten alargun pen-

sioen laguntza osagarria kalkulatzeko erabiltzen den erreferentziazko adierazlea, eta halatan, emakume eta gizon alargunek jaso beharreko laguntza osagarriak 52 eurokoak izatetik 29 eurokoak izatera pasatu dira; hau da, laguntzak % 45 murriztu dira.

Nafarroako Gobernuaren jarduketaren horrek, Legebiltzarreko akordioak urratzen ditu eta Nafarroako indar politikoen arteko adostasuna hausten du, eta Nafarroako alargunen ongizatearen aurkako eraso bat da.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du hartu beharreko lege-neurriak har ditzan alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata parekatzeari buruzko otsailaren 17ko 1/2004 Legean erabakitakoa berrezartzeko eta, horrenbestez, zergak aldatzeko abenduaren 29ko 19/2004 Foru Legea aldatzeko, zehazki alargun pentsioen kenkariei buruzko 5. artikulua, halako moduz non berreskuratu egingen baita alargun pentsioak jasotzen dituzten pertsonentzako laguntza osagarrien espiritua, Legebiltzarrean onetsia.

Iruñean, 2005eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Iruñeko Nabarrerria kaleko 39. zenbakian dagoen eraikinari “Pío Baroja eraikina” izen ofiziala emateko.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Iruñeko Nabarrerria kaleko 39. zenbakian dagoen eraikinari “Pío Baroja eraikina” izen ofiziala emateko.”

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2005eko otsailaren 9an egindako bilkuran,

erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2004ko abenduaren 20ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kixotearen IV. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak susta ditzan.

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kixotearen IV. mendeurrena ospatzeko ekitaldiak susta ditzan"

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak, 2005eko otsailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Izquierda Unida de Navarra-

Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak mozioa erretiratu izanaren jakitun dagoela adieraztea. Mozio hori 2005eko urtarrilaren 7ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Zangozan osasun etxea eraikitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Zangozan osasun etxea eraikitzeari buruz foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman daki-on.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, Zangozan osasun etxe bat eraikitzeari buruzko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Proposamenaren zioak:

Jakina da Zangozan osasun etxe bat eraiki beharra dagoela; izan ere, egungo osasun etxea kontserbazio egoera txarrean dago eta instalazioek gabezia nahiz muga nabarmenak dituzte.

Kontseilari andreak 2005. urtea hautatu zuen Zangozako bizilagunek eta udaleko ordezkari politikoek hainbestetan eskatutako osasun etxea eraikitzeke.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik aipatu osasun etxea 2005ean eraikitzeke?

- Legebiltzarrean orain dela gutxi onetsi ziren aurrekontuetan behar adina diru al dago beharri-zan horri erantzuteke?

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Tuterako “Torre Monreal” hezkuntza bereziko ikastetxean hidrotterapiako igerileku bat eraikitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Tuterako “Torre Monreal” hezkuntza bereziko ikastetxean hidrotterapiako igerileku bat eraikitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Orain dela hilabete batzuk Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroaren luzapena den lokal bat inauguratu zenuen Tuteran. Baliabideen zentroak hidroterapiako igerileku bat du Iruñean, eta Andrés Muñoz Hezkuntza Bereziko Ikastetxearen instalazioetan dagoenez gero, ikastetxe horretako ikasleek baliatzen dute batik bat. Nafarroan, egun, hezkuntza bereziko bi ikastetxe baino ez daude, bata Iruñean (Andrés Muñoz ikastetxea) eta bestea Tuteran (Torre Monreal Hezkuntza

Bereziko ikastetxea), Erriberako ikasle guztiak hartzen dituen.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Ba al dago asmorik hidroterapiako igerileku bat eraikitzeke Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko ikastetxean, Erriberako ikasleen premiei erantzutearren eta eskualde horretakoek pairatzen duten konparaziozko bidegabekeria amaitzearren?

– Hala ez baldin bada, ba al dago asmorik aipatu instalazioa Erriberako beste lekuren batean paratzeko?

– Zein epetan egingen dira obrak?

– Aurreikusita al dago kasuko kontusaila?

Iruñean, 2005eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren

Galdera, Tuteran dagoen Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroa materialez hornitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Tuteran dagoen Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroa materialez hornitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera

hau aurkeztu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Orain dela hilabete batzuk Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroaren luzapena den lokal bat inauguratu zenuen Tuteran. Inaugurazio hartan esan zenuen baliabideen zentroaren baliabideak Nafarroako Erriberara hurbiltzea zekarrela horrek. Baliabideen zentroak dokumentuen, liburuen nahiz ikus-entzunezkoen funts garrantzitsua du Iruñean.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Zer materialez hornitu edo hornituko da Tuterako baliabideen zentro hori?

– Zer funts esleituko dira materiala erosteko, ikastaroak egiteko nahiz prestakuntzarako?

Iruñean, 2005eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren

Galdera, Tuteran dagoen Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroa abian jartzeko Hezkuntza eta Osasun departamentuen koordinazioari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Tuteran dagoen Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroa abian jartzeko Hezkuntza eta Osasun departamentuen koordinazioari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Orain dela hilabete batzuk Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroaren luzapena den lokal bat inauguratu zenuen Tuteran. Inaugurazio hartan esan zenuen Osasun kontseilaria han egotea bi departamentuen arteko koordinazioaren adierazle zela.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

- Zertan gauzatu da zehazki koordinazio hori?
- Zer jarduketa-protokolo jarriko da abian?
- Zein epetan ezarriko da protokoloa?

– Zer profesionalek osatuko dute ekipo hori? Kontuan hartuko al da haur horiek artatzen dituzten pediatrien eta neuropediatrien aholku profesionala?

– Eskolako oporretan nola aurreikusi da eginen dela fisioterapiako tratamendua? Non eginen da? Nork eginen du?

Iruñean, 2005eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren

Galdera, Tuteran dagoen Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroan aritzeko profesionalen kopurua handitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Tuteran dagoen Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroan aritzeko profesionalen kopurua handitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Orain dela hilabete batzuk Hezkuntza Berezirako Baliabideen Nafarroako Zentroaren luzapena den lokal bat inauguratu zenuen Tuteran. Inaugurazio hartan esan zenuen baliabideen zentroaren

baliabideak Nafarroako Erriberara hurbiltzea zekarrela horrek.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Baliabideen zentro osoa kontuan hartuta, zentroko zenbat profesional gehiago egotea ekarri du, aurreko ikasturtearekin alderatuta, zentro hori irekitzeak?

– Lanaldi osoko zenbat fisioterapeuta esleitu zaizkio Tuterako zentroari, mugitzeko urritasuna Erriberan artatzeko? Zenbat zeuden esleituta aurreko ikasturtean lan hori bera egiteko Iruñeko baliabideen zentroan?

2004/2005 ikasturtean artatzen dituzten ikasleak direla eta:

- Zenbat ikasle artatzen dituzte zuzenean fisioterapeutek?

- Baliabideen zentroaren irizpideei jarraikiz, zein motatakoa da ikasle horien mugitzeko urritasuna?

- Erriberako zein ikastetxetan daude?

- Zenbat ikasle dago ikastetxe bakoitzean?

- Fisioterapiako zenbat saio egiten dute? Norena da erabakia?

- Oro har, aurreko ikasturtean baino saio gehiago egiten al du ikasle bakoitzak? Zein da ikasturte bakoitzeko batez bestekoa?

– Tuterako baliabideen zentroari esleitutako zer pertsonak artatzen dute Erriberan ikusteko edo entzuteko urritasuna? Zenbat zeuden esleituta aurreko ikasturtean Erriberako ikasleak artatzeko?

2004/2005 ikasturtean artatzen dituzten ikasleak direla eta:

- Zenbat ikasle artatzen dira? Aurreko ikasturtean baino zenbat gehiago?

- Baliabideen zentroaren irizpideei jarraikiz, zein motatakoa da ikasle horien ikusteko edo entzuteko urritasuna?

- Erriberako zein ikastetxetan daude?

- Zenbat ikasle dago ikastetxe bakoitzean?

Iruñean, 2005eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren

Galdera, minbiziaren kontrako tratamendua jaso zuten pertsonen batez besteko gastuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, minbiziaren kontrako tratamendua jaso zuten pertsonen batez besteko gastuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatzizko erantzuteko:

Parlamentari hau, iaz, edozein minbizi mota duten pertsonen interesatu zen bereziki, gaixotasunaz landa dituzten arazoez, Iruñetik kanpo bizi direnean kimioterapiako edo erradioterapiako tratamendua jasotzeko Nafarroako Ospitalera joan behar izateak eragindako arazoez.

Hori dela eta, jakin nahi dut ea Iruñeritik kanpoko zenbat pertsonak jaso zuten 2004an erradioterapiako eta kimioterapiako tratamendua Nafarroako Ospitalean.

Orobat jakin nahi dut zein den tratamendua jaso ahal izateko bere ohiko bizilekutik kasuan kasuko ospitalera joateak pertsona bakoitzari dakarkion gutxi gorabeherako gastuaren estimazioa.

Pentsatzeko modukoa da tratamendu guztiek ez dutela izanen iraupen bera, eta horregatik hain zuzen ere eskatzen da gaixo bakoitzari dakarkion gutxi gorabeherako gastuaren estimazioa.

Iruñean, 2005eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, segurtasun enpresei esleitu beharreko zerbitzuak zehazteko erabiltzen diren irizpideei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, segurtasun enpresei esleitu beharreko zerbitzuak zehazteko erabiltzen diren irizpideei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau

aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Segurtasun zerbitzuen parte handi bat segurtasun enpresa pribatuek ematen dute gaur egun. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dut:

– Zer irizpide darabil departamentuak erabakitzeke zer zerbitzu esleitu behar zaien enpresa pribatuei eta zein ez?

– Zer irizpide darabil Gobernuak zerbitzu horiek esleitzeko?

– Ba al da jarduketa protokolorik enpresa horiek ematen duten zerbitzua kontrolatzeko?

– Ba al da zerbitzua baloratu ahal izateko tresnarik?

Iruñean, 2005eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Foruzaingoko trafiko ataleko ibilgailuei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Foruzaingoko trafiko ataleko ibilgailuei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Zenbat ibilgailu ditu esleitura Trafiko Atalak?

– Zenbat ibilgailu radardun dago erabilgarri une honetan Nafarroan?

– Zenbat ibilgailu daude Nafarroako errepideetan patruilatzen? Zenbat kilometro egin dute?

– Zein da ibilgailuen mantentze-kostua 2004an?

– Zer material du une honetan Foruzaingok alkohol-maila kontrolatzeko? Adierazi noiz erosi zen eta noizkoa den azken homologazioa. Ba al dago material hori berritzeko planik?

– Zenbat ibilgailu erabiltzen dira trafikoko atestatuak egiteko?

– Ibilgailuak eskualdeka erabiltzen dira ala ibilgailuak berdin erabiltzen dira Nafarroa osoan?

– Zenbat kilometro dituzte une honetan atestatuak egiteko erabiltzen diren ibilgailuek? Adierazi noiz erosi ziren eta zein izan den mantentzeko eta konpontzeko kostua 2004an.

Iruñean, 2005eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Foruzaingoko 2005eko plantilla, organikoa eta eginkizunena, zehazteari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Foruzaingoko 2005eko plantilla, organikoa eta eginkizunena, zehazteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Departamentuak ba al du lanpostuen definizio organiko nahiz funtzionala jasotzen duen proposamenik Foruzaingoko 2005eko plantillarako?

– Departamentuak ba al du lanpostuen definizio organiko nahiz funtzionala jasotzen duen proposamenik Foruzaingoko 2005eko plantillarako?

– Halakorik ez baldin badu, ba al du asmorik 2005eko plantilla egiteko? Halakorik baldin badu, ba al du aurreikusita eperik?

Iruñean, 2005eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Foruzain berriak lanpostuei atxikitzeko irizpideei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Foruzain berriak lanpostuei atxikitzeko irizpideei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Foruzainen promozio berria lanean dagoenez, hauxe jakin nahi dut:

– Zer irizpide erabili da polizia berriei lanpostu jakin bat esleitzeko?

– Zer irizpide erabili dira azkenaldian egin den lekualdatze lehiaketan?

– Zer irizpide erabili dira azkenaldian egin den lekualdatze lehiaketan?

Iruñean, 2005eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, ezgaitasunaren arloko laguntza-zentro itunduei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, ezgaitasunaren arloko laguntza-zentro itunduei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Hauxe jakin nahi dut Nafarroan ezgaituentzat dauden zentro itunduei buruz:

1. Ezgaituei laguntza emateko zentro itunduen kopurua, herriz herri.

2. Zentro horietako bakoitzeko hitzarmen kolektiboa eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen zenbatekoak.

3. Hitzarmen kolektiboak noiz argitaratu diren edo argitaratuko diren. Argitalpen ofizialik ezean, zer arrazoik eragozten du horiek argitaratzea? Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak arazoa konpontzeko?

4. Ba al dago kontusailik 2004tik aitzina atzera-eraginez ordaindu behar ziren dirulaguntzak ordaintzeko? Zer aurrekontu-lerrori dagokio?

Iruñean, 2005eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Centros Tecnológicos de Navarra, S.A. (CETENASA) enpresan dagoen laser zentroari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Centros Tecnológicos de Navarra, S.A. (CETENASA) enpresan dagoen laser zentroari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Urteak dira Nafarroak Espainian aitzindaria den laser zentro bat duena. Industriadako erabile-rako aplikazio teknologikoen zentro hori Cetenasa enpresa publikoan dago kokatuta. Itzal handiko profesionalak dute haren ardura, eta haien lanak zenbait aldizkari teknikotan eman dira argitara.

Hauxe jakin nahi da:

– Zer hornidura teknologiko du aipatu laser zentroak?

– Zer inbertsio egin eta dirulaguntza eman ditu Nafarroako Gobernuak aipatu zentroko makineria eta prestakuntzarako 2000., 2001., 2002., 2003. eta 2004. urteetan?

– Zer proiektu eta lan jorratuko ditu zentroak 2005ean gure foru erkidegoan?

Iruñean, 2005eko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, osasun etxeetan monitore desfibriladoreak paratzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, osasun etxeetan monitore desfibriladoreak paratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Berehalako laguntza funtsezkoa da larrialdietan, eta hala frogatu izan da. Patologia askoren kasuan, azkar eta goiz jardunez gero izugarri murrizten dira ondorioak. Zenbait kasutan, bereha-

la eta egoki jardunez gero, zoritxarreko amaiera ekiditen da.

Horretarako beharrezkoa da osasun arloko behar adina talde profesional eta azpiegitura nahiz material egokiak izatea.

Oinarritzko osasun laguntzako profesionalek, berriz, monitore desfibriladoreak dituzten ekipoak paratzeko eskariak egin dituzte.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zenbat osasun etxetan daude halako aparatuek? Zeintzutan?

2.- Zenbat osasun kontsultategitan daude halako aparatuek? Zeintzutan?

3.- Zergatik daude monitore desfibriladorerik ez duten osasun etxeak?

4.- Zer neurri hartuko ditu departamentuak osasun etxeen arteko bereizkeria-egoera hori konpontzeko?

Iruñean, 2005eko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Tuterako César Muñoz Sola pintorearen margolanak erosteko aukerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Tuterako César Muñoz Sola pintorearen margolanak erosteko aukerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo

Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Jakin izan dugunez, Nafarroako Gobernuak 418.304 euroko gastua onetsi du César Muñoz Sola margolari tuterarraren bildumako 155 margolan errentan hartzeko.

Orain dela ia bost urte hil zen margolari horrek, antza denez, Tuterako alkateari adierazi zion bere borondatea zela margolanen bilduma herritarren gozameneko uztea, horretarako Tuteran egonen zen museo batean.

Bilduma hori erosteko aukerarekiko errentan hartua zuen Foru Gobernuak 2000n. Deigarria da herritarrek haren lana goza dezaten nahi duen

artista batek bere lana alokatu edo saltzea erabaki izana. Logikoagoa ematen du dohaintza egitea, haren lana behar bezalako baldintzetan hartuko duen museo bat egiteko konpromisoaren truke.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

- Noiz balia dezake Gobernuak erosteko aukera, berak nahi duenean ala jabeak saldu nahi duenean?

- Erosiz gero errentamenduarengatik ordaindu-tako dirua deskontatzen baldin bada, bildumak prezio bat baduela esan nahi al du horrek?

- Prezioa jarrita baldin badago, zein da prezio hori?

Iruñean, 2005eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, Eguesko udal planaren aldaketari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, Eguesko udal planaren aldaketari buruzkoa. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zer parte-hartze izan du gaur arte Lurraldearen Antolamenduaren Departamentuak Eguesibarko udal planaren aldaketan?

2.- Zenbat lursail erosi zituen Nafarroako Gobernuak Sarriguren aldean? Adierazi non dauden kokatuta, egindako eskualdaketak, eskualdaketan baldintzak, kalifikazioa eta aurrez ikusten diren erabilerak.

3.- Zenbat lursail erosi ditu edo erosi asmo ditu Nafarroako Gobernuak, bai zuzenean bai sozietateen bidez, Berrikuntza Hiria 2. fasearen garapena aurreikusita? Zehaztu prezioa, kokalekua,

erabilerak, erosteko sistema eta baldintza bereziak, baldin eta halakorik badago.

4.- Ba al da Nafarroako Gobernuaren nahiz bere edozein sozietateren itunik nahiz itun edo akordio zirriborrorik, zeinaren bidez jarduketak konprometitzen diren edo konpromisorik hartzen den salestarrak Sarrigurenen jartzeko? Halakorik baldin badago, erantsi horren kopia.

5.- Departamentua parte hartzen ari al da edo koordinatzen ari al da Nasuinsaren eta Iruñeko Udalaren arteko kudeaketak edo jarduketak hiriarren planeamendua aldatu eta salestarrek orain hartzen duten orubea dotazioetarako izatetik etxebizitzetarako izatera pasatu dadin? Hala ez bada, ba al du departamentuak xede hori duen ezein jarduketaren berri?

6.- Departamentuak ba al du (berez nahiz Nasuinsaren edo beste sozietate batzuen bidez) edo agindu al du egin dadin azterlanik ikastetxe barri bat –salestarren beharrianen eta Hezkuntza Departamentuaren eskakizunen arabera– eraikitzeke kostuak eta egungo ikastetxearen orubean etxebizitza libreak eraikiz gero sortuko liratekeen plusbalioak konparatzeko? Halakorik ez badu, ba al du asmorik datu hori aztertzeke? Noiz? Zein baldintzatan?

7.- Noiztik du departamentuak salestarrek lekuz aldatzeke duten interesaren berri? Zer kokaleku posible aztertu dira? Zein dira horietako bakoitzaren abantailak eta desabantailak?

Iruñean, 2005eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Nasuinsak berrikuntzaren hiriaren bigarren fasea antolatzen eta gauzatzen parte hartzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, Nasuinsak berrikuntzaren hiriaren bigarren fasea antolatzen eta gauzatzen parte hartzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zertan dautza Nasuinsa sozietate publikoaren parte-hartzea eta eginkizuna Berrikuntza Hiriaren 2. fasearen planeamenduaren antolamenduan nahiz exekuzioan?

2.- Nasuinsa izanen al da planeamenduaren aldaketa idatziz jarriko duena, inguruaren antolamendua eginen duena eta hezkuntza-ekipamendua aurreikusteaz arduratuko dena?

3.- Hala baldin bada, enpresa horrek ba al du berezko bitartekorik ala kontratatu eginen du kanpoko laguntza teknikorik? Betiere, zein baldintzatan –kostua eta finantzaketa barne– eta epetan eginen da lana?

4.- Departamentua parte hartzen ari al da edo koordinatzen ari al da Nasuinsaren eta Iruñeko Udalaren arteko kudeaketak edo jarduketak hiriaren planeamendua aldatu eta salestarrek orain hartzen duten orubea dotazioetarako izatetik etxebizitzetarako izatera pasa dadin?

Iruñean, 2005eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, osasun etxeetan itxaron zerrendak egiteko prozedurei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko otsailaren 14an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, osasun etxeetan itxaron zerrendak egiteko prozedurei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 16an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Osasun sistema publikoaren defentsa izan da sozialisten taldeak Legebiltzar honetan behin eta berriro azaldu duen kezketako bat. Osasun publiko eragingarriagoa izan nahi dugu, hobeki kudeatua eta modernoagoa alde guztietatik begiratuta. Baina, batez ere, herritar guztien arteko berdintasunaren oinarritzko tresna izaten jarrai dezan nahi dugu.

Gure ahalegina bideratuta dago osasun zerbitzuek kalitate handia izan dezaten eta Nafarroako Osasun Zerbitzuan herritarrei laguntza arduratsua eman dakien. Bermatu nahi dugu gizon eta emakume nafarrei, bere maila ekonomikoa zein ere den, behar dutenean ematen zaiela laguntza eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak ematen ahal dituen eta eman behar dituen kalitate handiko zerbitzuak

jasotzen dituztela. Halaber, jakin egin behar da zer alde dagoen itxaron zerrendetan hitzordu zain daudenen eta behin hitzordua jasota artatzeko zain daudenen artean.

Horretarako, beharrezkoak dira, besteak beste, itxaron zerrendak desagerraraztea xede duten ekintzak, halako moduz non herritar guztien zerbitzuko osasun sistema bat errotuko den; izan ere, gaur egun gertatzen dena da espezialitateetako itxaron zerrendak luzeak direnez osasun zerbitzu pribatuari egiten zaiola mesede, herritarren arteko bereizkeria eraginez noski.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zer prozedura dago indarrean osasun etxeetan prozesu osoko fase guztietako itxaron zerrendak egiteko, horrela itxaron zerrendetan hitzordu zain daudenen eta behin hitzordua jasota artatzeko zain daudenen arteko aldea ezagutzeko?

Zehaztu itxaron zerrendak eta itxaron zerrendetarako itxaron zerrendak, ondokoen arabera: Nafarroako osasun etxe publikoetako espezialitate kirurgikoak, diagnostia egiteko miaketak, osasun-azterketak eta lehen kontsultak.

2.- Kontuan izanda itxaron zerrenda luzeak daudela zenbait espezialitate kirurgikotan, besteak beste traumatologian, ginekologian edo oftalmologian, zer neurri eta jarduketa abiarazi asmo ditu Osasun Departamentuak egoera hori bideratzeko eta horrenbestez osasun sistema publikoko eragingarritasuna eta efizientzia hobetzeko eta herritar guztiei zerbitzua berdintasun-baldintzetan jasoko dutela bermatzeko?

Iruñean, 2005eko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda